

ZENBAT BURU  
Edurne Bilbao

ERREPORTAIA  
Husky txakurrekin  
konpetizioetan

ASTE HONETAN  
Gripe izurritea

BERBETAN  
Andres Elizondo  
albokaria, animazio  
egilea, ...

KIROL  
ELKARRIZKETA  
Aitor Kapanaga


KIROLA  
San Anton pilota  
txapelketa

GAZTAROA  
6NEMEN9ren  
maketa berria

# BARREN

1997ko urtarrilaren 24a  
V. urtea - 180. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Husky txakurrak:  
Irabazteko  
instintoarekin jaio

“Langi le onarentzat ez dago erreminta txarrik”





Mutua General de Seguros



Mutua General de Seguros



Mutua General de Seguros

# Egoitza berria Jausoro



## Telebistaren zozketa



Pablo Luis Uribe txerria izan da aurtengo Gabonetako zozketan telebista irabazi duena.

## Gaurko erabakiak bihar lasaitasuna ziurtatuko



Mutua General de Seguros



Mutua General de Seguros



Mutua General de Seguros



Mutua General de Seguros



Mutua General de Seguros

## Aseguru mota

- Istripu aseguruak
- Istripuak errentarekin
- Gaisotasun aseguruak
- Kotxe aseguruak
- Etxe aseguruak
- Aurrezte planak
- Jubilazio planak
- Bizi aseguruak
- PYME aseguruak
- Denda aseguruak

...

Jausoro Plaza, 1 behea  
Santa Klara  
Tel. Faxes: 74 26 99  
20870 ELGOIBAR



EDURNE BILBAO

## Ikasleen arteko elkar-trukeak

**G**izona gizon denetik, kultura ezberdina ezagutzeko jakinmina izan du. Gaur egun, jakinmina baino gehiago, derrigorrezkoa den egoera bihurtu da. Komunikabideen garapena dela eta, lehen bost axola bazitzaigun munduko beste puntan gertatzen zena, orain etxe guztietara heltzen da notizia eta parte sentitzen gara, bai gure ekonomian eragina izan dezakeelako edo beste edozer arrazoiengatik. Horretarako prest egon behar gara, gutxienez beste hizkuntza bat ikasi kompetitiboak izateko (ingeleza normalean), telebistako berriak jarraitu eta egunkariak irakurri egunean egoteko.

Bide honetatik jarraituz "neura" piska bat sartzen zaigu gorputzean eta askotan, "hori nerekin ez doa" pentsatu eta "zertarako beste hizkuntza bat ikasi" galde diezaiokegu gure buruari. Hemen inguruan lantxo bar aurkitu edo zerbait irtingo den itxaropenez agian oportunitateak pasatzen uzten ditugu.

Oportunitateak ez dira bakarrik udan atzerriera ingeleza ikastera joatea, honek diru dexente suposatzen baitu gaztetxoa zarenean eta sosik ez daukazunean.

Badaude ikastetxeek egiten dituzten elkar trukeak ere. Egia da hizkuntza bat "serioski" ikasteko buru-belarri sartu behar zarela horretan eta hizkuntza hori hitzegiten den herrialdean denbora dexente igaro. Hamabost egun edo hilabete dirauten truke hauek "usaintzeko" astia besterik ematen ez dutela pentsa dezakegu. Baina, ez al da hau bide interesgarri bat nolabait "trena hartzeko"?

Neri horrela gertatu zait. Ikastetxean frantsesa ikasten nengoela, Frantziako beste ikas-


tetxe batekin harremana zuela eta truke bat proposatu ziguten. Nor dago hilabete han igarotzeko prest? Segituan sartu zitzaidan gogoan. Ez ziguten titulu berezirik eman bertara joateagatik; bidaia eta jatekoa poltsikotik ordaindu behar izan genuen, hemen kurtsoa aurrera zihoan eta itzuli ginenean gure kontura "errekuperatu" behar izan genuen gure ikaskideek ordurarte ikasitakoa. Alde txar asko. Baina, alde onak? Beti eskertu dut esperientzia hau pasatzea. Modu ezberdin baten ikasten duzu bitzitzen, txarra edo ona, baina ahaztuko ez duzuna" urteren ondoren, lagun minak ditut oraindik han ezagututakoak, urtero ikusten garelarik. Agian ez nuen nota gorena atera nere ikasketetan, baina gaititu nituen eta noski, frantses maila hobetzeko eta ondoren mantetzeko demaseko bultzada izan zen okasio hura.

Gaur egun truke hauek gehienetan Erakundearen diru laguntzarekin egiten dira, Europar Programak direla eta. Beraz, ez daukagu diru ezaren arazoa. Benetan horrelako aukera izanda, harritu egiten nau zein ikasle gutxi animatzen den. Askotan, animatu beharrean egoten dira, pegak bakarrik ikusten dituzte eta bultzatu egin behar dituzu pauso hori ematera. Nik ezin dut ziurtatu dena ongi irtingo dela, gerta daiteke, eta gertatu izan da, bi taldeen harremana (atzerriko eta hemengoena) azalean geratu izatea. Hori bai, behin parte hartuz gero, egoera aprobeztatu eta dena ematea merezi du, zure asmoak horrelakoak badira; seguraski beste aldetik ere horrelako norbait agertuko da.

Probatu, merezi duela esan dezaket, besterik ez.

**"Modu ezberdin batean ikasten duzu bitzitzen, txarra edo ona, baina ahaztuko ez duzuna"**

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

### ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

### LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

### ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

### ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,  
Rosa Agirregabiria

### KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

### PUBLIZITATEA

Myriam Aldazabal

### MAKETATZAILEA

Maite Rementería

### ADMINISTRAZIOA

Amaia Martín

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

### KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegí,

Gemma Agirregomezkorta,

Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao,

M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza,

Juanito Gorostiza, Antton Iriondo

KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martínez, Juan Luis Mugertza,

Ixidor Solupe, Leire Urkidi

eta Julen Zabaleta.

### BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

### INPRIMATEGIA

Gertu koop. E

### TIRADA

4.000 ale

### LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

### ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



luzka fundazioa  
fundación luzka



## Sigmari buruz

Elgoibarko PNVren industri politika ezak MUPEM, ANAYAK eta hainbat enpresa Itziarko industrialdera joatera behartu zuen, horrek gure herriari galera ekonomiko handiak sortaraziz.

Krisi ekonomikoak eta beste zenbait arazok SIGMA ixtea ekarri zuten. Gaur egun SIGMAko pabilioiak Fogasaren (Fondo de Garantía Salarial) esku daude, hau da, Gizarte Segurantzak, Hazienda (Foru Aldundia) eta Eusko Jaurlaritzak.

Elgoibarren lur industrialak sortzeko aukera paregabea dago orain. Sigmako lur sailak 36.000 m<sup>2</sup> ditua, eta legez 15.000 m<sup>2</sup> erabilgarriak dira.

Eusko Jaurlaritzak, Aldundia eta Elgoibarko Udala soru zirenetik PNVren esku egon dira, baina alderdi hau ez da gainbehera ekonomikoa geldiarazteko neurririk hartzeko gai izan.

Herri Batasunak jakin ahal izan duenez, Gasteizko Gobernuaren nahia lur sail horiek lehenbailehen eta halamoduz saltzea da, norentzat eta zertarako erabiliko diren begiratu gabe. Zerbitzu enpresa handi bat interesaturik dago.

Elgoibartarron esku dago lur industrial publiko eta merkea eskuratzeko aukera. Gure herriak ezin dio industriari bizkarra eman. Gure seme-alaben etorkizuna gaur hartutako erabaki zuzenen neurrian egingo dugu.

Elgoibarko PNVren ardura berebizikoa da. Gasteizko Gobernu eta Diputazioen indarra egin behar du, SIGMA Herriarentzat izan dadin, gure industrigintzaren onerako.

MUPEM eta ANAYAK joan zitzaizkien arren, ezin dute SIGMArekin berdin jokatu. Politika industrial garbiaz borrokatu dezatela 36.000 m<sup>2</sup> horiek elgoibartarron onerako erabiltzeko.

**Elgoibarko HB**

## Aupa!

Euren neurriko Gaztetxe baten alde lanera doazen Elgoibarko gazte guztiei, aupa!, nahiz eta jopuntu erraza izateko arriskua izan demokrazia ikasientzat, edo okerragoa oraindik, familiako ardi beltz bihurtzekoa. Benetan ezer anitzik bada, hori Gaztetxea da.

Aupa baita ere euren egiteko politikan dagoelakoan, zerura igo ondoren, handik behera datozen herri honetako agintariei. Zartagina heldulekutik eduki dezakezue, baina ezin diezaiekezue gazteei ziririk sartu poltrona onenaren zatirik ez galtzeko baino hartu ez duzuen borondate horren gainean.

Eta beti bezala diruari buruz hitzeginez bukatuko dugu, ezaguna egingo zaizuen gaia. Gazteengatik ezer gutxi egin badezakezue, askoz gehiago egin zenezakete oztopoak jartzeari utziko bazeniot.

Zuentzat ere aukera egokia litzaiteke argazkian azaltzeko, Gaztetxe bat inauguratzea, baina... Elgoibarraren eh!

**Carlos Balseiro**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

## GALDERAK

### ◆ Ba al dauka Udalak San Raketik Mintxetarako bidean dagoen zuloa konpontzeko asmorik?

- Hirigintzako buruak esan digu dagoeneko konponduta dagoela. "Azken egunotan Brigada oso lanpetuta ibili da baina eguraldia hobetu bezain pronto egin dute konponketa."

## KEXAK

◆ Solfeoko ikasle batzuk kexu dira klasean dauden bitartean tiobiboetan musika altuegi jartzen dutelako. Musikaren bolumena baxuago ipintzeko eskatu nahi diete, mesedez, barraketakoei.

## TXALOAK

◆ "Gaztetxekoak txalotu nahi ditut azken bi asteotan antolatu dituzten kontzertuengatik. Ekintza hauei esker gure herriko giro kulturala berpizten ari da."

◆ Txalo berezi bat eman nahi diete Odol Emaileen Elkartekoei odol beharra egon zen egunetan luzatutako deiari erantzun zioten 86 herritarrei.



◆ Neskato batzuek tiobiboetakoak txalotu nahi dituzte euskal abestiak jartzen dituztelako.

## BAI, ESAN?



Milagros  
Picaza

Gurutze Gorriko  
presidentea

**Aste honetan Elgoibarko Gurutze Gorriko presidentea den Milagros Picazari** deitu diogu Elgoibarko ambulanzia kentzeko asmoa baitauka Eusko Jaurlaritzak. Gai honi buruz berba egiteko deitu diogu Milari.

- **Zer iritzi daukazu Jaurlaritzaren erabakiari buruz?** - Nere ustez, birmoldaketa hau ez da batere egoikia eta gehiegi murrizten du lehen eskaintzen zen zerbitzua. Jarritako denbora epeak ez dira beteko eta herri askotan 10 minutu baino gehiago itxaron beharko dute.

- **Zertarako da Gurutze Gorriaren ambulanzia?**

- Argitu beharra daukat momentu honetan bi ambulanzia ditugula; lehenengoarekin larrialdiak, prebentzio eta ongizate zerbitzuak betetzen dira (hau Eusko Jaurlaritzak emandakoa da). Bestearekin, berriz, ongizate zerbitzuak eta prebentziozkoak egiten dira batez ere, hala ere, eta beharrezkoa denean, larrialdietarako erabili izan da. Iaz, 650 larrialdi egin genituen, 120 ongizate zerbitzu eta 120 prebentzio zerbitzu (futbol partiduak etab. dira hauek).

- **Anbulanzia Elgoibartik desagertzen bada, zein egoeratan geldituko da herriko Gurutze Gorria?**

- Guk ez dugu desagertutzat jotzen ambulanzia zerbitzua. Bai Gurutze Gorriaren bai Udalaren aldetik, zerbitzu honekin jarraitzeko ahaleginak egiten ari gara eta agian, epe laburrean, emaitzak ikusten hasiko dira. Guk zerbitzuarekin jarraitzen dugu; behar izanez gero ambulanzia irten egiten da. Bestalde, ambulanziaz gain, Elgoibarko Gurutze Gorriak baditu beste hainbat zerbitzu, hala nola, Gazteen Gurutze Gorria, Ongizate zerbitzuak eta. Gure asmoa Elgoibarren alde lan egitea da eta beharrezkoa den heinean eta boluntarioak ditugun heinean asmo horrekin jarraituko dugu etorkizunean ere.


*Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu BARRENEk sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.*





# Huskyekin konpetizioan

*Begi urdindun txakur ikusgarria da Huskya, azken urteotan dexente hedatu dena inguruan. Iaz, hain justu, BARRENen ikusi ahal izan genuenez, Ruandaren aldeko itzulia egin zuen Axen Garitano bergararrak hainbat Huskyrekin. Elgoibarren bertan, Huskyak dituen bikote baten berri izan dugu. Maite Barrietabeña eta Fernando Ruiz txakur batekin hasi ziren. Gaur egun 10 dituzte, eta konpetizioetan ibiltzen dira Beraiekin izan gara berbetan hanka artean Frodo eta Thelma txakurkumeak saltaka ari ziren bitartean.*



liak ziren haiek bestelako afizio batera eramán zuten bikotea. Izan ere, Husky txakurrekin egiten diren konpetizioen berri izan eta beraiek ere saltza hartan sar zitezkeela pentsatu zuten. Eta hala egin. Lehen saiakera Gorlan izan zen, “urtero egiten da froga bat eta han izan ginen, Shuka eta Shiva hartu eta bizikleta batekin”. Gorlako txapelketara joan zirenean ez zuten inolako esperientziarik baina, halere, nahiko postu onean iritsi ziren, “50 partehartzaille inguru ginen eta 19. postua lortu genuen”.

## Konpetizoen mundua

Momentu hartan Shukak hiru haur izan zituen eta, poliki-poliki, Maite eta Fernando konpetizioaren munduari bestelako begiekin begira hasi ziren, “tokia ere bageneukan txakur gehiago izateko eta Gorlako esperientzia gustatu zitzaigunez, gaia- ren inguruan gehiago jakin eta ezagutu nahian hasi ginen”. Logikoki, txakurrak izatearekin ez zen nahikoa eta horien ezaugarriak ezagutzea, nolako prestakuntza komeni zaien, zein modalitate dauden... Askok eta askok ziren jakin beharreko gauzak. Eta bidean jarri ziren. Nafarroako Ligan izan dira aurtén eta egin dituzten froga gehienetan bigarren postua lortu dute. Fernandoren hitzetan, “kontuan izan behar da gureak oraindik oso txakur gazteak direla, 9 eta 18 hilabete bitartean dute eta txakur hauek 3 urte in-

**M**aite eta Fernandok duela bi urte inguru erabaki zuten txakur bat erostea. Shuka erosi zuten, Husky arrazakoa. Handik denbora batera Shiva eskuratu zuten, “Shukarentzat laguna nahi genuen”. Ordura arte etxean izaten zituzten bi txakurrak baina, halako batean, Sigma inguruan lokal bat izateko aukera suertatu zitzaien, “poliki-poliki guk geuk txakundu eta konpondu eta hirugarren txakurra ekarri genuen, Chinook”.

Hasiera batean etxerako anima-

guruan izaten dira helduak. Oraindik, beraz, onena emateko dute”.

### **Prestakuntza**

Genetika da garrantzitsuen Huskyen kasuan, “berehala konturatzeko zara txakur jaioberriak duen nerbioaren, txisparen arabera heldua denean zer emango duen eta zer ez”. Hortik aurrera kanpora atera behar dira, “hasieran askatasun osoa eman behar zaie, saltaka ibil daitezela, pasiaran, mendian ibil daitezela... Kuriositate handia duten txakurrak dira eta hori garatu egin behar dute. Gero, gutxika-gutxika, pazientzia handiz, arnes batekin lotzen ditut lerroan, ohitura har dezaten. Hori bai, disfrutatu egin behar dute, sufriarazi egiten badiezu, lan guztia alperrikakoa da”. Txakur bakoitzak ardura desberdina hartzen du, “bat liderra da, beste bat liderraren laguntzailea eta besteak taldeko txakurrak dira, liderren eta enborraren artean doazenak. Enborra atzean doazen txakurrek osatzen dute, pisu guztiaren ardura dutenak”.


### **Garaileen sena**

Husky txakurrak bereziak dira, “karro gainean zaudenean konturatzeko zara zein txakurrek duen nahikoa indar korrika jarraitzeko. Hori bai, onak direnean, oso onak dira, batetik berez duten irabazteko sena horrek bultzatzen dituelako eta, bestetik, jabearekin dioten leialtasunagatik. Oso esker oneko txakurrak dira”. Sakrifizioari ez diote bat ere beldurrik Huskyek, “eskatzen badiezu, ematen dute. 12 km.ko karrerak direnean ere, nahiz eta bukaerarako leher eginda egon, ahal duten guztia emango dute”.

Era honetako konpetizioetan ibiltzen direnen artean denetik dago. Ho-



*Maite Barrietabeña eta Fernando Ruiz Husky txakurrekin.*



rietako batzuek, dirua eskuan, txakurrik onenak erosten dituzte. Badira, etxean bertan hazten dituztenak ere. Maite eta Fernandok formula mistoa daramate, “alde batetik guk hazitako txakurrak ditugu eta bestetik, generazioz generazio saltaka ibili diren txakurren kumeak ere ekartzen ditugu”.

### **Musher eta Handler**

Musher deitzen zaio txakurren atzean doan gidariari, kasu honetan Fernandok betetzen du funtzio hori. Handler-ak, berriz, txakurrak lotzen ditu, edaten ematen die, zaindu egiten ditu.... Momentuz Maite da Handler-a baina, “datorren urtean daukat asmoa musher bezala hasteko”. Hori bai, Fernandok argi utzi du “benetako atletak txakurrak direla. Musherrak konfidantza, autoritatea, diziplina, entrenamenduak jartzen dituen da baina bene-benetako kirolariak txakurrak dira. Eurak dira protagonistak”.

### **Pulka eta Kar**

Husky txakurrekin egiten diren konpetizioetan bi modalitate daude: Pulka eta Kar. Pulka lurrean egiten bada, gehienez bi txakurrek har dezakete parte, bizikleta edo patinete bati tira egiten diotelarik. Elur gainean denean, aldiz, bi edo hiru txakurrek har dezakete parte eta eski gainean izaten da. Kar deitzen den modalitatean, aldiz, trineoak erabiltzen dira, lur gainean denean gehienez 6 txakur izanik eta elurrean 12.

### **Udaberrian Elgoibarren**

Momentu honetan Alpeetan dago bikotea txakurrekin entrenatzen, otsailean eta martxoan jokatu den Espainia mailako txapelketan parte hartuko baitute.

Halere, Fernandok azaldu digunez, bere asmoa udaberri aldera Elgoibarren txapelketaren bat antolatzea litzateke, “alkatearekin hitz egiteko asmoa daukat, ea promozionatuko luketen etxeak lortzen ditudan eta, udaberri aldera karrera majo bat antolatzea posible den, urtero errepikatzeko modukoa. Benetan ikusgarria litzateke urtero-urtero Elgoibar toki desberdinetatik etorritako Husky eta musherrez betetzea”.

### **Huskyen maldizioa**

Hobby merkea denik ezin esan, “txakur hauek ez dira merkeak eta 10 mantentzea nahikoa garesti ateratzen da. Gainera, konpetizioetan ibiltzen bazara, gastua gehitu behar duzu, baina konpentsatzen du. Gustatzen zaigulako egiten dugu. Txakur batekin hasi ginen eta engantxatu egin gaitu. Gaur egun 10 ditugu”.

Maitasun eta atentzio asko eskatzen duten txakurrak dira, oso absorbenteak. Huskyen inguruan badago maldiziorik, “esaten dutenez, bikote asko banatu izan da txakurrak direla eta. Bietako bat hain engantxatuta egotean txakurrekin, azkenean bikotearen arteko harremana hoztu egiten da eta jendea, gehienetan, txakurrekin geratzen da”. Bitxia, ez?

# Pasatu al duzu griperik?



**AMADA MEGIDO**  
29 urte, etxekoandrea

Nik ez. Etxean senarra egon da gripearekin baina ez da oso gogorra izan, katarroa batez ere. Nik ez hartzerik espero dut!




**ANGEL ONDARZA**  
58 urte, jubilatua

Bai eta etxeko beste guztiek ere bai. Eztarria, eztula eta horrelako sintoma txikiak izan ditut. Etxean bero-bero geratu eta kitto.



**PAULI PEREZ**  
40 urte, etxekoandrea

Senarrak eta semeak bai baina nik ez. Semeak nahiko gaizki pasatu du, medikuak ohean egoteko eta esnea eztiarekin hartzeko esan zion.




**IBAN RUIZ**  
25 urte, fresadorea

Ez, eta normalian oso zaila izaten da ni gaixotzia. Hala ere, etxean aitxa egon da gripe txiki batekin, luzia baina suabe-suabia.



**IMMA MARTIN**  
29 urte, ekonomista

Griperik ez, nik normalean mokoak-eta izaten ditut baina gehiago ez. Senarra dago gripearekin baina arratsalde bat izan ezik, ez da ohean geratu.



**BERNARDO CEBRIAN**  
47 urte, espezialista

Oraindik ez baina batek daki! Gurean ia denak egon dira gaixo, emaztea eta alaba bat salbu. Beste alaba batek nahiko gripe gogorra pasatu du.

**HARTEGIA-URDAITEGIA**

**ZIARDA**  
**BASERRIKO KALITATEA**

Errosario kalea, 10 · Tel. 74 05 54 · ELGOIBAR

**Merino**

ZAPATADENDA

**Haur eta gazteentzako eta kirolerako oinetakoak**

Errosario, 12 - Tel. 74 07 08 - 20870 ELGOIBAR



# Gripe izurritea

**G**ripena gaixotasun birkoa da. 38°tik gorako sukarra, hotzikarak, buruko mina, begietako mina, gorputz txarra, ahulezia eta ez tul zikua edukitzen dira. Sintomak desagertu eta zortzi edo hamar egunera ez tulak oraindik ere iraun egiten du. Honekin guztia-ekin batera giharreetako mina ere izaten da.

Birusa oso kutsagarria da eta hitz egiterakoan edo ez tula egiterakoan botatzen diren tanta kutsatuen bidez transmititzen da.

Modu isolatuan ager daitekeen gaixotasuna da baina eskuarki izurrite modura agertzen da abendu eta apiril bitartean.

Bizitzan behin bakarrik pasatzen diren gaixotasunak daude. Gaixoak defentsa iraunkorrek sortarazten ditu eta ez du berriro gaixotasuna hartzen bizitza osoan zehar. Gripearen kasuan birusak aldaketak jasaten ditu urtetik urtera. Hortaz, gizaki batek sortzen dituen defentsa horiek ez dira erabat eraginkorrak. Batzuetan birusa erabat aldatzen da eta horren aurkako babesgarririk ez dugun birus berri bat sortzen da. 1918, 1957 eta 1968ko izurriteetan horixe gertatu zen.

Gripe izurriteak haurrek izaten dituzte arnaske- ta aparatuko infekzioekin hasten dira. Beranduago helduengan sintoma tipikoak somatzen hasten dira eta azkenik, ospitaleetan neumonia kasuak edo gaixotasun kronikoak dituztenen kasuak agertzen dira.

Tratamendua sintomati-koa da. Sukarra eta buruko minak kentzeko aspirina



**J.M. BALANZATEGI**  
Medikoa

edo parasetamola erabil- tzen dira. Ez tula kodeina- rekin ondo kontrolatzen da.

Antibiotikoez ez dute onurarik ekartzen eta gau- zak txarrera egiten badute bakarrik erabiltzen dira. Medikuak esan behar du une jakin batean antibioti- koak eman behar diren ala ez.

Gripearen kontrako txertoa ziztatu egiten da eta normalean urrian eta azaro- an ematen da. "Gaixotze arriskua" duten pertsonen dago zuzendua: 65 urtetik gorakoak, egoitzetan dau- denak, bihotzeko edo biri- ketako gaitzak dituztenak, diabetikoak, immunologia ahula dutenak, anemia edo giltzurruneko gaitzak di- tuztenak eta osasun zentro- etan lan egiten dutenak. Txertoak ematen duen ba- besa ez da erabatekoa bai- na %80an da eraginkorra.

Jarraian Deba Beheko hainbat datu zehazten dira urtez urte:

Gripena Deba Behean	
1991 .....	614
1992 .....	230
1993 .....	849
1994 .....	993
1995 .....	457
(Erredakzioan itzulia)	

# iSPI- DEGIRA



**OSORO**  
zapata denda-  
koa

*Nula Garro*

- **Zeren alde egingo zenuke ibilaldi bat?**
- Bidezko edozein arrazoiengatik.
- **Pauso sendo eta handiak ala txiki eta suabeak ematen dituzu?** - Nahiko ausarta naiz, pauso handi eta ausartak ematen ditut.
- **Kiroliek egiten al duzu?**
- Mendira juten naiz baina bestela...
- **Zerk jartzen zaitu pozez saltaka?**
- Denda ondo doala ikusteak.
- **Etxeko zapatilak nolakoak?**
- Neri atzeko parterik gabe gustatzen jataz.
- **Botak ala zapatak?** - Neguan botak, baina mokasinak-eta gehiago gustatzen jataz.
- **Eta takoiarekin ala gabe?**
- Gabe. Beti estilo baten baina erosoia izateari begiratzen diot batez ere.
- **Zein koloretako oinetakoak ez zenituzke jantziko?** - Gorria deigarriegia iruditzen zait.
- **Zer zapalduko zenuke desagertarazi arte?**
- Hipokresia.
- **Zein da salgai duzuen zenbakirik handiena?**
- 47a.
- **Etxeko zein lan gustatzen zaizu gutxien?**
- Kozinatzea. Sekula ez dut ezta arraultza bat ere egin!
- **Zerbaitez damutzen al zara?**
- Damutu aurretik kontrolatzen saiatzen naiz.
- **Zein zorakeria egin nahi zenuke?**
- Aurten 50 urte beteko ditut eta ilea labanaz moztuko dudala esaten dut.
- **Benetan?** - Beti asko fijatu izan naiz ile orrazkeran. Atentzioa deitzen dit.
- **Maniarik?** - Zapatak beti garbi eukitzia. Norbaitek zapatak zikinak baditu, asko galtzen du neretzat.
- **Udaberrirako ezer berririk?** - Marfil kolorea asko dator baina gainontzean, antzera xamar.

## ● Euskararen erabilerari buruzko kale-neurketa

Abenduaren 18, 19, 20, 21 eta 22an Udalak egindako neurketaren arabera elgoibartarren %76,7aren euskara erabilera neurtu da. Horietatik %31,7k hitz egiten du euskaraz kalean. Gehien zaharrak eta haurrak eta gutxien helduak. Gironik erdaldunak txikiteoa eta gazte giroa dira eta urtez urteko datuak konparatuz gero, zaharren eta gazteen artean igo da erabilera. Azkenik, elgoibartarren %64ak euskara ezagutzen duen arren, erdiak baino ez du erabiltzen.

## ● EKBren azterketa

Euskal Kulturaren Bartzarreak (EKB) Gipuzkoako helduen euskalduntzeari buruzko Siadecoren inkesta kaleratu du. 20 eta 39 urte bitarteko erdaldunek euskararen aurrean duten jarrera jaso da. Gipuzkoako erdaldunen %52,6a euskara maila hobetzen saiatu da; hauek %49ak euskaraz ondo hitz egitea du helburu. Euskaltegian matrikulatu gabe egoteko arrazoi nagusia denbora falta da. Aspekturik kezagarriena ikasketa-prozesua amaitu ondoren gertatzen den euskararen galera da.

## ● Matrikula irekita AEK euskaltegian

AEK Euskaltegiak irekita dauka ikasteko edo hobetzeko matrikulaldia. Maila guztietan izena emateko aukera dago, baita EGA titulua ateratzeko ere, klaseak goizez, arratsaldezein gauez izango direlarik. Interesatuak 74 13 32 zenbakira dei dezakete edo Plaza Txikiko AEKren egoitzera hurbildu hilaren 31 baino lehen.

# Ikastolako frontoiaren gestioa Patronatuaren esku geratu da


Ikastolako frontoia Udal Kirol Patronatuaren instalazioen barruan sartu da Jose Mari Belza Ikastolako presidenteak eta Guillermo Garate Patronatuko presidentek iragan berri den astean sinatu duten hitzarmenari esker. Hortaz, eskolaorduetatik kanpo frontoiaren erabileraren gestioa Patronatuaren esku geratuko da. Frontoiaren garbiketa eta mantenua ere Patronatuaren ardura izan da.

Urte osorako frontoia alokatu nahi dutenek hilaren 30era arte izan-

go dute izena emateko epea Kiroldegian edo 74 44 15era deituta. Hilaren 31n, arratsaldeko 7etan, apuntatu diren guztien artean zozketa egingo da Kiroldegian.

Frontoia arratsaldeko 5etatik gauko 11ak arte erabili ahal izango da astegunetan. Larunbatetan goizeko 9etatik 7ak arte eta igandean eguerdiko 2ak arte. Frontoiaren alogera 1.400 pta.koa izango da orduko bazkideentzat eta 2.300koa bazkide ez direnentzat.

Ikastolako frontoian hainbat berrikuntza egin dira urte honetan. Guztira 350 eserleku jarri ditu Patronatuak eta Ikastolak horma guztiak margotu ditu. Frontoiaren berri-naugurazioa iazko San Bartolome jaietan egin zen. Hitzarmena bost urterako sinatu da.



## IMH, El Salvadorreko ikastetxeekin elkarlanean

IMHk, hainbat Euskal Institutu eta erakundekin batera osatzen duen Cones erakundearen baitan, El Salvadorreko INSAFORP Lanbide Heziketa Institutuarekin elkarlanerako hitzarmena sinatu dauka. Abenduan Contes-eko lau ordezkari El Salvadorren izan ziren sinatutako hitzarmena nola gauzatuko den zehazteko. Proiektuaren xedea Hegoamerikako estatu horretan lanbide heziketa gaurkotzea eta hobetzea da. Programaren puntu garrantzitsuenak zentro piloeten ekipamendua gaurkotzea eta hobetzea, itsaso eta arrantzurako heziketa zentro bat era-

tzea eta El Salvadorreko gainontzeko ikastetxeetan zentro piloak martxan jartzea dira.

### Indonesiar bekadunak

Joan den larunbatean 12 kidez osatutako Indonesiako ikasle talde bat iritsi zen IMHra. Indone-

siarrak Institutu Politekniko bateko langileak dira eta IMHn ezezik, Arrasateko Eskola Politeknikoan eta Muskizeko Lanbide Eskolan ere jasoko dute heziketa. Ikasleak otsailaren 21era arte geratuko dira gure herrian.






## San Migeleko errekastoko obrak San Pedroko bidegurutzeraino iritsi dira

Hirigintza batzordeko lehendakaria den Jose Maria Oruesagastik obrei buruz esan digunez, “uste baino harri eta lur gehiago dago eta ondorioz lan erritmoa nahiko geldoa da”. Halere, inguru guztian ganga enkofratuak sartzen hasi dira eta dagoeneko San Pedroko bidegurutzeraino

iritsi dira lanak. Laster Jausoroko etxebizitzetara arteko ibilbideari ekingo diote eta azkenengo fasea San Pedroko bidegurutzeraino hasi eta Metala baserraino izango da. Bertan baltsa bat eraikiko da solidoak banatuko dituen. Obra hauen helburua uholde arriskua ekiditea da.



## Tanborrada Herri Eskolan

Donostian eta Azpeitian ezezik, Elgoibarren ere ospatu zen San Sebastian Eguna. Argazkikoak Herri Eskolako ikasleak dira. Sukaldari txapelak jantzita eta tanborrak makilekin astinduz burrunba ederra sortu zuten ikastetxean. Hona hemen horren froga grafikoa.



## Gazteen kontzentrazioa

Joan den ostegunean Mekanikako zenbait ikaslek kontzentrazioa egin zuten Plaza Handiko frontoian Josu Arkauz presoarekin elkartasuna adierazteko. Herriko kaleak zeharkatu ondoren Plazan geldialdia egin zuten, pankarta baten bidez elkartasuna adieraziz.



## Zazpiki Irratia Gaztetxearen alde

Zazpiki Irratiko hainbat kidek Udaletxearen aurrean pankarta batekin kontzentrazioa egin zuten joan den ostiralean, Gaztetxearen okupazioarekin elkartasuna adierazteko. Segidan, Gaztetxerantz abiatu ziren giza-katean. Zazpiki irratia egindako zozketaren zenbaki saritua 0953 da, eta ordezkoa 1134. Saria hilabete baten epean jaso daiteke Zazpikiko norbaitekin harremanetan jarrita edo 74 34 74ra deituta. Bestetik, hil honen 18an egindako bileran programaren bat duten guztiek bileretara joan beharko zutela erabaki zuten. Joan ezin dutenek aurrez abisatu beharko dute eta bileretara agertu ezean, irratsaioa programaziotik kenduko da.

## ● Galiza Etxean zuzendaritza berria

Galiza Etxekoek zuzendaritza berria izendatu dute. Presidentea Camilo Otero da. Zuzendaritzako gainontzeko kideak hauexek dira: Vicente Ribao Gómez (presidenteorde), Ovidio Campello (idazkaria), Isaac Ramos López (diruzaina), Gumersindo Vila Babarro (harreman publikoak), Martin Menor Feijoo (liburuzaina) eta bozeramaileak Isaac Munín Amaro, Manuel Dobarro Dobarro eta Javier Barandela Villanueva.

## ● Medikurako txanda aurrez hartu

Osasun Zentrotik jakinarazi digutenez, gripe izurrittea dela-eta, ezinezkoa da egunean bertan deituta medikuarentzako txanda ematea. Hortaz, medikura joan beharra dutenei, aurrez txanda hartzea eskatzen zaie. Jakin, goizeko 8etatik arratsaldeko 5ak arte ematen dutela txanda 74 33 54 zenbakira deituta.



● PPko zinegotzia bonobusak jartzearen alde agertu da

Juan Carlos Avian PPko zinegotziak, Deba-Durango eta Mendaro-Ermua ibilbidea egiten duten autobusetan bonobusa jartzearen aldeko mozioa aurkeztuko du hil honetako plenoan. Avianen esanetan, "egunero joan-etorriko txartela erostea oso garestia ateratzen da; horregatik nire asmoa Udaletxeak Euskotren enpresaren bonobusa martxan jartze-ko eskaera egitea da".



Bizkaian ba omen dago era horretako txartela. Herriar talde batek helarazi zion eskaera zinegotziari eta Avianek, Elgoibarko Udalean ezezik, Ermua, Eibar eta Durangoko Udaletara ere bidali du idatzia haiek ere kontuan izan eta guztien arten indar gehiago egin dezaten.

Masaia, garbiketa eta aerobik zerbitzuak kontratatu ditu patronatuak

Udal Kirol patronatuak ezagutzera eman du masaia, garbiketa eta aerobik zerbitzuak nori egokitu zaizkion.

■ **MASAIA** zerbitzuaren ardura OKE C.B. enpresak hartu du, honek aurkeztu baitzuen eskaintza ekonomikoki onena (diru-sarreraren %70a Patronatuarentzat eta %30a langilearentzat). Masajista lanetan Iñaki Murgiondo eibartarra arituko da. Zerbitzu honen ordutegia goizeko 9etatik 12ak arte eta arratsaldeko 4etatik 8etara bitartean izango da. Ordutegia goizeko 8etatik gaueko 9ak arte luzatuko da txanda aurrez eskatuz gero.

■ **GARBIKETA.** GUREAK tailerren Galant taldeari eman zaio garbiketaren gestioa. Bi lizitazio aurkeztu ziren: Kalamuarena eta Galant-ena. Azken hauen proposamen ekonomikoa besteena baino apur bat hobea zen eta proposamen teknikoa ere bai. Garbiketa eta mantenu zerbitzuak betetzeko 3 langile egoten dira

goizez eta langile bat arratsaldez.

■ **AEROBIKA.** Orain arte aerobika ematen zuen Conchi Reche ermuarrak jarraitzen du zerbitzu honekin. Aurkeztutako proposamen guztien artetik Conchi Reche egin zuen proposamen ekonomikoki eta teknikorik onena.

Bestetik, igeriketa seta orospen zerbitzuari dagokionean, ez da inolako proposamenik jaso, Patronatuaren eskaintza ekonomikoki baxu xamarra omen delako. Hilabete barru-edo berriz aterako da zerbitzu hau. Azkenik, tabernaren lehiaketa publikoa Aste Santu aldera kaleratuko da.



Igeriketa zerbitzuan ez da proposamenik jaso.



**JUAN JUARISTI ALBERDI**  
-Goian bego-  
Elgoibarren hil zen  
urtarrilaren 19an, 83 urterekin.

*Benetako euskaldun  
jatorren kidea  
beti erabili duzu  
nekezko bidea  
zuk ondo bete duzu  
euskaldunen legea*



**EAko alderdikideak**

## BENIDORM Jubilatuen paradisia

Etapa berri bati eman diogu hasiera BARREn. Asteroko aleak ezezik, gehigarriei ere ikutu berezia eman nahi izan diegu. Zaharrek Berri deitzen den honako honetan, esate baterako, hilero-hilero bikote, talde edo pertsonaren bat ekarriko dugu gure artera eta bidaiei buruz hitzegingo dugu berarekin. Hasi, Benidorm-ekin hasiko gara. Izan ere, jubilatuentzat toki paregabea omen da bai klimari dagokionean bai eta giro aldetik ere. Pedro Romero eta Antonia Tercero iazko urrian izan ziren. Eta ahal dutenean errepikatzeke asmotan daude.

- 15 egun egin zenituzten Benidorm-en.

- Bai, iazko urrian. Jende askori entzuten genion Benidorm-en bezala ez zela beste inon egoten eta prezioak nahiko merkeak direnez gu ere animatu egin ginen.

- Zenbatean atera zitzaizuen?

- Inersok antolatutako bidaia izan zen. 15 egun izan ziren eta bion 79.000 pta kostatu zitzaigun. Autobusa, hotela eta jatordu guztiak barne. Ikusgarria zen hotela, logela txukunak, jangela ederra, pistina eta guzti eta hondartzaren ondoan. Pena merezi izan zuen.

- Lehengo aldia zen ateratzen zinetela, ez?

- Bai, ezkonbidaiarik ere ez genuen egin. Zoragarria izan zen goizean esnatu, oherik ere egin gabe gosaldu, hondartzara joan, bazkaldu..

- Ezkonbidaia izango balitz bezala.

- Igoal-igoal!

- Zein izaten zen plana?

- Lasai-lasai esnatu eta gosaldu, hondartzara joan, eguerdi partera gizonak txikiteoan ibiltzen ziren, bazkaldu, pistinara joan eta lasai

etzanda egon...

- Eta gauean?

- Kristoren giroa! Hotelean bertan animatzaile bat zegoen eta gauero ekintzak antolatzen zituzten. Jendea mozarrotu egiten zen, jolasak egiten genituen...

- Eta dantza.

- Baita ere. Batzuetan hotelean eta bestela, anaia bat bertan bizidenez, Benidorm-eko diskoteketara joaten ginen: "Las Vegas", "Manila"...

- Jende asko egoten da, ez?

- Sinestezina da! Kaleak gainezka eta diskotekak... Ikusgarria da adineko pertsonen nola egiten duten dantza, inolako oztoporik gabe, agarraoak, soltean ere bai...

- Ligatzeko primeran, beraz.

- Bueno! Benidorm-era joaten direnentzat paradisia da hura.

- Benidorm inguruko tokiak ere ezagutu al dituzue?


- Bai. Irteerak egin genituen Alacant eta Elchera. Oso hiri politak dira. Horiek aparte ordaindu behar izan genituen, 3.000 pta. bakoitza, baina bazkaria hotelean prestatzen dizute, bokadilo batzuk. Oso ondo.

- Gauza bitxirik ere badago...

- Bai, goizero hondartzan gimnasia ematen duen gizon bat egoten da. Bera hasi eta beste mordo bat elkartzen ginen. Bakoitzak borondatea ematen zion gero.

- Berriz noiz?

- Ahal dugunean, maiatz aldera edo tokirik badago... Klima beroa, giro ezin hobea... Osasuntsu eta ilusioz itzultzen zara. Pena merezi du!



# Juanita Isasti:

## "Arreuekin hasi eta abadien altzakuelluak ere plantxatzen nitxun"


Altzolan jaio zen duela 78 urte. Juanita Isastik Bainuetxeko garai oparoa ezagutu zuen, dozena bat hotel eta pentsio egon ziren garaia. Juanitak esan digunez, "sekula ez gendun pentsauko guk harek behera eingo zabanik!". Baina, urteek ezusteak ekartzen dituzte eta ia ezer, edo ezer, ere ez da betirako. Juanita plantxatzailea izan zen, Elgoibarren egon zen bakarra. Gaur egun ezezaguna zaigun ofizoari buruzkoak kontatu dizkigu.



- Nolatan plantxatzaile? - Tiak itxen zaban Altzolan eta berari ikusitza nakixan. Elgoibarrera etorri nitzan bizitzera eta batek zeozer plantxatze-ko, bestiak ere berdina eta azkenerako lan mordo bat juntau jatan. Tiari esan nion etortzeko Elgoibarrera, bi-xontzako lain eta gehixo zauala eta. 1948xan jarri ginan.

- Zer eratako arropak plantxatzen zenituzten? - Zer ez? Danetik izaten zan. Orduan etxe guztietan neskak arreua eitxen zebe ezkontzen zianerako. Igual 12 urtekin hasten zian preparatzen: izarak, matelerialak... Kostunbria izaten zan poliki-poliki, arreua osatzen juten zian neurrian, ohe gainian ipintzia esposizuan eta laguneri erakustia. Horregatik, oso inportantia zan ondo plantxauta eukitzia eta askok ekartzen zien arreo osua. Ondo plantxau, doblau... Algodoa izaten zan dana eta ondo laga bihar izaten zan.

- Kurtinak, alkondarak... - Bai, bai... Neri danetik ekartzen zien. Etbietarako kortinak, porejnplo, bolantiak euki-



tzen zitxuen eta tenazekin engalonau ein bihar zian, rizua etara bihar jakuen. Nesken kumunxoko erropekin berdin, umien kumak eta kotxesilak ere ez zian oin bezelakuak izaten... Harek izaria eta dana ondo plantxauta eruan bihar izaten zebe.

- Eta dendetatik ere izaten zenituen enkarguak. - Bai, sastrerixak zabaldu zitxuenian eura eitxen zitxuen traje eta alkondarak neri ekartzen zien plantxatze-ko.

- Modaren arabera aldatzen al zen plantxatze-ko era? - Bai. Egon zan epoka bat jende danak alkondaran lepua brilluakin nahi izaten zabana. Plantxa espeziala egoten zan, lepua gogorra ipini, plantxa espezialakin pasau eta gero brillua ematen jakon. Abadiak altzakuelluak ibiltzen zitxuen. Harek ere algodoizko zurixak izaten

zian, ondo plantxau, gogorra ipini eta lepoko tiriari brillua eman bihar izaten jakon.

- Zenbat plantxa zenituen? - 12 edo. Plantxadoran sua eitxen zan, antrazitiakin normalian, eta haura berro-berro jartzen zian plantxa danak, buelta-bueltan ipintzen genitxun. Burdinezko plantxak zian, fundiziotik ekarritxakuak. Plantxia hozten jun ahala, plantxadoratik beste bat hartu eta aurrekoa berotzen lagatzen genduan.

- Ordu asko tente, ez? - Mordo bat! Forjiakin hasi goizeko Getan eta gabian ere kafia hartu eta segi eta segi, Aizpirineko oilarrak kantuan hasi arte! Fetxa batzuetan, gainera, Aste Santuan eta hola, askoz lan gehixo egoten zan ze, orduan jendiak erropia estrenatzen zaban eta ondo plantxauta eraman bihar izaten zan. Kumunixo epokan ere, eukitza dibut etxian 24 soineko bata bestian onduan zintzilik.

-Geratzen al zaizu garai hartatik zerbait? - Egixa da beti geratzen jatzula zeozer eta ondiokan kalian nauanian asko fijatzen naiz erropetan eta behin baino gehixotan pentsatzen dot, 'horrek ere hartuko leuke plantxau eder bat!'.



## Zein pelikula eta aktore zenituen gustukoena?

Brad Pitt, Antonio Banderas, Sharon Stone, Michelle Pfeifer... Aktore oso ezagunak dira gaur egun gure artean. Horiek guztiak eta beste asko. Pelikulak ere, nahi beste. Estilo guztietakoak, zuzendari gazte eta beteranoak han-hemenka. Zineak jende asko mugitzen du gaur egun eta aktoreak izar bihurtu dira. Lehen ere antzera zen. Baina orduan bestelako pelikulak egiten ziren,



### Paquita Pardo

Ni ez nintzen zinera joaten. Baserri batean bizi nintzen eta inguruan ez zegoen zinerik. Ezkondu eta gero ikusi nuen lehen aldiz pelikula bat zinean baina, egia esan, ez zait gehiegi gustatzen. Gaur egun ere ez naiz joaten eta telebistan pelikularen bat ematen dutenean ez dut ikusten.



### Mercedes Cid

"Enriqueta la ciega" pelikula zazpi aldiz eman zuten eta zazpi aldiz ikusi nuen. Asko gustatu zitzaidan. Enriketaren bizitzari buruzkoa zen eta bera zen protagonista, itsua benetan. Gero, gogoan ditut John Wayne, Sarita Montiel... Gure garaian, gainera, zinera joateko baimen berezia behar genuen berandu izaten zen eta, gaueko 9etan. Pezeta 1 balio zuen eta ez pentsa gutxi zenik, paga aurreratu behar izaten genuen.



### Tomasa Blanco

Nire herrian ez zegoen zinerik. Gero Frantziara joan nintzen eta han ere ezin ezer ikusi, frantsesez ez nekien eta. Akordatzen naiz "Gilda" ikusi nuen, asko gustatu zitzaidan. Halere, telebista gehiago gustatzen zait, ETBn ematen duten "Toma y daca", esate baterako, oso gustura ikusten dut. Gure garaiko aktoreen artean Rock Hudson asko gustatzen zitzaidan eta Luis Mariano ere bai.



### Olegario Gonzalez

Odeoiaren inaugurazioan, "Los cuentos de Hoffman" eman zuten. Gero, "Las chicas del tren" errebista ere etorri zen... Niri asko gustatu zitzaidan "Yo confieso" baina antzerkia beti gustatu izan zait zinea baino gehiago. Saritismaren pelikulak jende guztiak ikusi nahi izaten zituen. Lehengo pelikulek argumentua izaten zuten, orain pornografia hutsa da. Zentsura zegoen lehen baina orain dena da libre!



### Julian Martinez

Antonio Molina asko gustatzen zitzaidan niri. Ni Andaluziakoa naiz eta Molinaren pelikulek asko gogoraraten zidaten hura. Ostegunetan joaten ginen garai hartan gazteak zinera, "El Elgoibarres" eta "Odeoia" zeuden orduan Elgoibarren. Ez zen orain bezala, asko jota pipak uzten zizkiguten jaten eta erretzera, nola ez, kanpora. Sofia Loren zen gure garaian aktoresarik ezagunenetakoa, Liz Taylor... Niri pistoloenak ere asko gustatzen zitzaizkidan.



*Duela 33 urte Eibarren jaio zen. Ezkondu zenetik Elgoibarren bizi da Andres Elizondo eta torloju fabrika batean egiten du lan. Halere, gu beste arrazoi bategatik izan gara berarekin berbetan. Batetik, Andresek goizero mendira joan eta alboka jotzen du eta, bestetik, bere kontura ikasita, ordenagailuz animazioak egiten ditu. Lehiaketetan ibili izan da, telebista lokale-tarako lan txikiak egin izan ditu eta iaz Nizan erakusketa batean parte hartu zuen.*

# ANDRES ELIZONDO

1997-I-24

## “Albokia jotzia terapia bat da”

– Euskal klarineta deitzen diote albokari.

- Bai, hala da. Instrumentu autoktonoa da, Euskal Herrikoa. Ezagutu nabanean gustau ein jatan, oin dala 7 urte erosi eta nere kontura ikasten hasi nitzan.

–Ez al da zaila?

- Flautia eta Diyudiyu izeneko instrumentua ere jotzen ditzut. Azkenengo hori Australiako instrumentu autoktonua da. Hirurak dia aire instrumentuak eta danak ikasi ditzut jotzen nik bakarrik. Hori bai, albokian kasuan diskua dakat eta han entzuten ditzuten piezak jotzen ditzut, beste batzuk inprobisau...

–Eta non jotzen duzu?

- Mendixan. Etxian ez ze zarata haundixa etaritzen dabe. Egunero, lanera jun baino lehen mendira juten naiz eta han jotzen dot albokia. Neretzat terapiarik onena da, beste mentalitate batekin juten naiz lanera. Gainera, arnasa sabeletik hartzen dozunez, oso erlajantea da, yoga eta horrelako tek-

nikak bezalakoa.

–Eta zer egiten du torlojigile batek animazio lane-tan?

- Hori ere hobby bat da. Oin dala 7 urte erosi nabane oso ekipo ona eta nere kontura hasi nitzan ikasten, gauza berrixak deskubritzen eta sortzen. Telebistan ikusten nitxun animazio gauzak nik ere eitxia okurritxu jatan eta oin arte.

– Zer da animazioa?

- Objetu desberdinei mugimendua ematea ordenadore bidez. Hiru dimentsiotan egiten da lan eta nik forma geometrikoak erabiliz gauzak sortzen ditzut gero mugimendua emateko.

– Zu, gainera, lehiaketetan ere ibili izan zara.

- Bai. Lekeitio eta Gasteizko Animazio festibaletarako aurkeztu nitxuen nere lanak eta aukeratuak izan zian 150en artian. Gasteizen Juanma Bajo Ulloa, Santiago Segura, Anton Reixa eta hoiek aurkeztu zian. Oso maila ona zegoen, horregatik selekzionatua

izatia oso inportantea da.

–Telebistarako ere egin izan dituzu gauzak.

- Ba, Arrasate Telebista eta Zarautz Telebistetarako karatulak. Hala ere, nik dakaten ekipua ona izan arren gaur egun askoz hobeak daude eta gauza batzuk ezin dira egin. Ez dauzkat baliabide guztiak, nahiko mugatua nao...

– Istorioak ez al dituzu kontatzen?

- Ez, hori askoz zaila da. Gainera, istorio bat kontatzeik espresioa ere jartzea suposatzen da eta lan handia da. Azken finean, animazioa objektu bizidunei mugimendua ematea bada, espresioa ematerakoan bizia ere ematen diezu. 10 segunduko mugimendua lortzeko 2 ordu behar ditut, espresioarekin hasiko banintz, orduak eta orduak beharko nituzke.

– Etxean ez duzu telebistarik.


- Ez, ezkondu nintzenen kentzea erabaki naban. Batetik, komunikazioa apurtzen dabalako. Bestetik, manipulazio hutsa dalako eta hirugarrenik, imajinazioaren aurka dagoen gauzarik indartsuena dalako. Marrakiz bizidunak bakarrik gustatzen jataz. Pantera Rosak, esate baterako, espresio haundixa daka, oso ona da.

–Lana, torlojuak, animazioa... Ez al da asko?

- Beti topatzen da denboria dana egiteko. Alboka lanera jun aurretik eta animazioa gabian, beste guztiak lo daudenean. Gainera, lanean nauanian ere beti nabil gauzak bueltaka, ideiak hartzen gero animazioan lantzeko. Ideiak buruan pilatu eta gero ordenadorian lantzen ditzut.

### BESTEAK ESANA

“Geldi egon ezin diren horietakoa da nire semea eta horregatik bere kontura gauza asko ikasteko gaitasuna dauka.” GABRIEL ELIZONDO





# IKASTAROAK *DOHAINIK* LANGI-



ELGOIBAR-  
KO HERRI  
INSTITU-  
TUA

Arregitorre, 2  
ELGOIBAR

“LANGILEEN PRESTAKUNTZARAKO EUSKAL FUNDAZIOA”ren  
%100eko dirulaguntzarekin langileei zuzenduriko ikastaroak

## INFORMATIKA

	Orduak	Ordutegia	
■ Sarrera-Windows 95	16	16,30-18,30	18,30-20,30
■ Word-testu tratamendua	36	16,30-19,30	18-21
■ Acces-Data baseak	36	16,30-19,30	18-21
■ Excel-kalkulu orria	36	16,30-19,30	18-21
■ Multimedia aurkezpenak	36	18-21	

## GESTIO ETA KOMERTZIALAK

■ Marketing zuzena	36	18-21	
■ Nominak eta seguritate soziala	45	18-21	
■ Informatizaturiko gestio komertziala	45	18-21	
■ Erlazio interpersonalak- komunikazio eta barne informazioa	60	finkatu gabe	

## Lagunik onena zure telefonoaren ondoan!

Elgoibar eta Mendaroko zerbitzu eta profesional guztiak eskura izan ditzazun.



*Zure helbidea edo telefonoa oker  
badago edo ez bazara GIDAn  
agertzen, deitu!!*

*74 37 04*



**A**rgazki hau 1924 inguruan ateratakoa izan daitekeela esan digu berau ekarri digunak, **Kontxi Gabilondo Garatek**. “Nire aitxitxa eta amamaren argazkien artean zegoen eta gure aldizkarira bialtzen dut, interesgarria delakoan”. Interes handikoa dela ez dago dudarik. Gaur egun Kultur Etxea dena beste itxura batez agertzen da. Azoka Plaza zaharra egin baino de-xente lehentxoagokoa.

Lau gauza aipagarri ikus daitezke: lehenik, Correos edo Postetxea eta Telefonika aurretik, Abdon Gabilondok bazuela hor josteko makina eta oihal denda bat, Eibarko ALFA lantegiaren ordezkari batzuen. Atean ageri dena, Estefania Urkizu da, Abdonen emaztea.

Bigarrenik, Dorretxearen aurreko ertzeko gurutzea oraindik San Frantzisko komentuan izango zen, hor ez baita ageri.


Hirugarrenik, dorretxeari berari dagokionez, beste bi gauza aipagarri: bigarren solairuko balkoi luzeak bi fatxada hartzen ditu armariaren azpialdean eta gaur egun azoka dagoeneko aldean hor ageri da garotoia ere.

Amaitzeko, argazki zahar honekin batera **Ina Garagarzak** beste bi hauek utzi dizkigu eraikuntza honek izan duen bilakaera ikus ahal izateko. Erdikoa Abdonen tailerra ipini baino lehenagokoa da eta behekoa, telarra kendu eta gerokoa. Abdonen denda zegoen tokian aurrezki kutxa jarri zuten eta berau egiteko bi fatxadak hartzen zituen balkoia kendu egin bide zuten.





## “Eskolarteko kirolak teknikoan beharra dauka”



### Aitor Kapanaga

- **Adina:** 28
- **Dieta ala kirola?** Bixen arteko oreka
- **Animaliarik etxean?** Ez. Kokodriluak eta tortugak gustatzen jataz baña ezin leikez etxian euki.
- **Egingo ez zenukeen kirolrik?** Ez dao
- **Txandalaren kolorea?** Prakia urdina izan deixela

– **Beti izan duzu argi kirolean arituko zinela profesional moduan?** - Beti gustau izan jata kirola eta... Danetik ein det baina ezertan sakondu gabe: Ikastolan futbolian eta eskubaloian eta gero banakako kirolean. Atletismon ibili nitzan federata eta gaur egun federatu mundutik kanpo nabil. Eskalada eitxen dot, mendira juten naiz eta Morkaikon ere banao.

– **Zein irteera ditu IVEF egiten dituen batek?** - Batetik, hezkuntza dao. Eta honez gain, kirolian aritu leike alor guztietan: aisialdian, terapia bezela, kompetizioan. Hezkuntza da diru gehixen ematen dabana baina erreformiak hiru ordu eman biharrin astian bi ematen diaz.

– **Kirol guztietan jasotzen duzue formazioa?** - Bai, oinarriko formazioa da eta horri esker edozein kirolean espezializatzeko erraztasun handixak dauzka.

– **Gimnasio batean zaude Ermu.** - Muskulazioa eta fitnessa ematen dot. Gimnasia juten dan jendiantzat eta kirol federatuan dabilenentzako entrenamendu programa ziaua eitxen dot.

– **Zein garrantzi dauka kirolak irakaskuntzan?** - Gaur egun gorputz hezkuntza esaten zaio, ez da

gimnasia, lehen deitzen jakon bezela. Horren barruan gauza asko dao eta honez gain, eskolarteko kirolak ere asko bultzatu dia instituzioetatik. Helburua da gorputz hezkuntza horren komplementua izatia.

– **Ba al dauka eskolarteko kirolak gabeziarik?** - Eskolarteko kirola boluntariuetan egon da oinarrituta eta nere ustez teknikuak falta diaz. Instituziuek kontzientzia hartu bihar ko lukete eskolarteko kirolek dauken garrantziaz.

– **Zenbat kirol egitea komeni zaio pertsona bati?** - Sasoian egoteko iharduera fisikoa deitzen dana eitxen da normalian, txapelketetatik kanpo daozenak. Iharduera fisikoa astian hiru edo lau aldiz, orubete edo bi ordu eitxia komeni da. Aldia eoten da ze intentsidadekin eitxen dan, adina, norberaren kodigo genetikua, ohitura txarrak, pertsona aktibua zeran, jatekua,...

– **Zer falta zaio Elgoibarko kirolari?** - Nik ikusten dot betiko kirolak eitxen diala eta kirol berriak bultzatu bihar diala, boleibola esateko. Honez gain, naturakin kontaktuan eitxen diazen kirolentzako Elgoibarren inguru ezin hobia dao eta ondo eongo litzake probetxua ateratzia.

## ESKOLARTEKO JOKOAK

### EMAITZAK (Urtarrilak 17)

#### ESKUBALOIA

- **Benjamin mutilak** ■  
Mendaro A2 1 - Ikas Mazarro 5  
Mendaro A1 14 - Ikas Kirol 1  
Pilar Flash 2 - Ikas Txut 6  
Pilar Lakasitos 2 - Ikas Zirt 4
- **Benjamin neskek** ■  
Ikas Izar 0 - Ikas Zart 5  
Mendaro B 10 - Pilar Usoak 2  
Urasandi 0 - Pilar Kas 1

#### SASKIBALOIA

- **Alebin neskek** ■  
Pilar Star Girls 12 - Pilar Mix 22  
Herri Women's 10 - Ikas Sei 18  
Mendaro C 10 - Ikas Beder 48
- **Infantil mutilak** ■  
Pilar Star Girls 12 - Pilar Mix 22  
Herri Women's 10 - Ikas Sei 18  
Mendaro C 10 - Ikas Beder 48
- **Infantil neskek** ■  
Peña Insti 10 - Ikas Gorri 4  
Pilar Girls 4 - Ikas Beltz 18  
Pilar Manchester 4 - Ikas Axelkoak 9

### AGENDA (Urtarrila 25, larunbata)

#### 9,30 ATLETISMOA

- **Benjaminak (Mintxetan)** ■

#### ARETO FUTBOLA

- **Alebin mutilak (Kiroldegian)** ■  
9,00 Pilar Ajax - Pilar S. Germain  
9,45 Herri Boomerang - Pilar All Star  
10,30 Herri Manchester - Ikas Axelkoak  
11,15 Mendaro D - Ikas Otsokoak  
12,00 Ikas Eguzki - Ikas Ilargi
- **Alebin neskek (Urasandin)** ■  
9,00 Pilar Mix - Ikas Sei

- 9,45 Pilar Star Girls - Ikas Beder  
10,30 Herri Women's - Ikas Txingor  
11,15 Mendaro C - Ikas Trumoi

#### SASKIBALOIA

- **Infantil mutilak (Ikastolan)** ■  
9,45 Ikas Pirri - Ipurterreak  
10,30 Pilar Inter - Ikas Txuri  
11,15 Pilar Boys - Ikas Amantis  
12,00 Ikas Urdin - Herri Milan
- **Infantil neskek (Pilarrean)** ■  
10,30 Ikas Katxondak - Ikas Beltz  
11,15 Pilar Manchester - Ikas



SAN ANTON PILOTA TXAPELKETA

Leon eta Sukia txapeldunorde izan ziren jubenetan

Berasaluzeko VII.ak eta Zearrak txapela irabazi zuten afizionatueta

San Anton egunean jokatu ziren Ikastolako frontoian Lagunak Pilota Eskolak antolatutako Eskuz Binakako Pilota txapelketaren finalak. Frontoia lepo zegoen zale-tuen finalak ikusteko. Joko aldetik txapelketa polita izan zen, nahiz eta Karmel Leon elgoibartarrak txapela eskuratzetik izan ez.

Finalak jubenetan nor-gehiagokarekin hasi ziren. Leon elgoibartarra eta Sukia batetik, eta Etxaniz eta Elola azkoitiarrak bestetik. Aurrez aurreko partidua honetan azkoitiarrek zergatik ziren faborito erakutsi zu-

ten. Azkoitiarrak gogor aritu ziren aurrealdean batez ere, eta hasieratik markagailuan euren aldeko abantaila zegoen. Sakeari esker, 6 puntu lortu zituzten eta Sukiak ezin izan zuten gauza handirik egin atzealdean. Markagailua 16 eta 4, 16 eta 9 eta azkenean 22 eta 9 zegoela amaitu zen partidua. Leonek partidua apala egin zuen, oso urduri egon baitzen denbora guztian.

**Afizionatuak**

Berasaluzeko VII.ak eta Zearrak atzealdeko jokoari esker lortu zuten Otaegi eta Okiñena gainditzea. Hasieratik Okiñenari huts

eginaraztea izan zen bikoite txapeldunaren asmoa, bai eta lortu ere. Txapeldunak gogor hasi ziren, 7 eta 0 markagailuan. Geroago Okiñenak eta Otaegik aurrea hartzea lortu zuten baina azkenean 22 eta 14 irabazi zuten Berasaluzeko VII.ak eta Zearrak.

*Eskuman karmel leon.*



*Partehartzaileak, agintari eta antolatzaileekin.*



aitor zabala

**EMAITZAK**

**Futbola**

Pedrusko 5 - Eibartarrak 0  
Elgoibar 5 - Urki A 2 (2. jubenetan)  
Elgoibar 3 - Añorga 0 (Kadeteak)  
Elgoibar 1 - Miren Bihotza 1 (1. erreg.)  
Elgoibar 0 - Ordizia 0 (Infantilak)  
San Pedro 0 - Haundi 0  
Zumaia 0 - Elgoibar 2 (Neskak)  
Beraun 3 - Elgoibar 3 (Oho. jubenetan)

**Eskubaloia**

Pneumax Elg. 38 - Don Bosco 15 (Kad. mut.)  
Almen 22 - Pneumax Elg. 33 (Kad. mut.)  
Unceta Elg. 35 - Bergara 3 (Kad. neskak)  
Bergara 23 - Tecnomeca Elg. 18 (Jub. mut.)  
Hyundai Elg. 24 - Aretxabaleta 22 (Seniorrak)

**Futbitoak**

Orbela 0 - Karkis 1  
Spartak Pitxote 10 - Udaberri 1  
Bokordo 3 - Zazpi 7

**Areto futbolak**

C. Extremeño 3 - Elgoibar F. S. (1. maila)  
La Navarra 4 - Elgoibar F. S. 2 (Autonomikoa)

**Pilota Kluben arteko Liga**

El Cortijo (Logroño) 5-Leon-Balzola 22 (Jub.)

**Deba Arroko txapelketa**  
Perea/Arillaga (Lagunak) 22-  
Lazkano/Hernando (Eibar) 8 (Kokortuak)

Gerrikabeitia/Balzola (Lagunak) 22 -  
Gandiaga/Andonegi (Eibar) 14 (Gazteak)

Ansola/Alzibar (Lagunak) 22 -  
Narbaiza II/Peréz (Eibar) 7 (Nagusiak)

**Xakea**

Añorga 4 - Elgoibar A 0 (1. maila)  
San Andres 2 - Elgoibar B 2 (2. maila)  
Lazkao 1 - Elgoibar C 3 (3. maila)

**AGENDA**

**Futbola, Mintxetan**

**Larunbata, 25**  
12,30 Urki B - Zumaia (2. jubenetan)  
16,30 Haundi - Vasconia  
18,15 Elgoibar - Aloñamendi (Neskak)  
**Igandea, 26**  
9,30 Eibar - Ondarru (Oho. kadeteak)  
11,15 Gazteak - Eibartarrak (2. jub.)  
13,00 Eibartarrak - Antzuola (2. erreg.)  
14,45 Urki A - Arrasate (2. jubenetan)  
16,30 Elgoibar - Eibartarrak (oho. infantilak)  
18,15 Urki - Zestua (2. erreg.)

**Eskubaloia, Kiroldegian**

17,00 Pagoaga Elg. - Bergara (Jub. nes.)

**Futbitoak, Kiroldegian**

**Igandea, 26**  
9,00 Kosakos - Sanroketarrak  
10,00 Aldavas - Maser  
11,00 Sorpresa - Ikus Optika  
12,00 PSK - Spartak Braga

**Pilota, Ikastolako frontoian**

**Larunbata, 25** (kluben arteko liga)  
17,00 Lagunak - Zaramaga (Gasteiz)

**Xakea, Juan Mugerza kalean**

**Larunbata, 25**  
16,00 Elgoibar A - Fomento (1. maila)  
Elgoibar B - Eibar (2. maila)

**K I R O L A L B I S T E A K**

● **Xakeko Liga Probintziala**

Zubi-Ondo Elkarteak Xake Taldeak joan den zapatuan eman zion hasiera probintzialako beste xake taldeen aurka jokatzeko ari diren txapelketari. Ohi denez, partidak larunbatero jokatu dira. Juan Mugerza kaleko egoitzan, arratsaldeko 4etatik aurrera. Zubi-Ondokoek lehen, bigarren eta hirugarren mailetan dituzte taldeak.

● **Eskia Baqueira Bereten**

Ibai Klubak Baqueira Beret-era eskiatzera joateko irteera antolatuta du hil honen 31tik otsailaren 2ra bitartean. Hotel Viellan-en bi gau igaroko dira pentsio erdian. Hori eta autobusa eta forfait-a bi egunerako 22.600 pta.ko prezioaren barruan sartzen dira. Alokatzeko materiala, ikastaroa eta aseguruak aukerakoak dira. Informazioa eta erretserbak egiteko Ibai Klubera joan (Santa Ana 46) edo 74 07 93/74 27 06 zenbakietara deitu.

# SAN ANTON JAIK

Arrakasta izugarria izan zuen "Florido Pensil" lanak

Jende asko sartu ezinik geratu zenez, antzezlan berriz ekartzekotan dabil Udala

*Joan den ostiraleko "Florido Pensil" emankizunaren aurretik behin bakarrik bete izan da Herriko Antzokia antzezlan batekin. Duela lauzpabost urte izan zen "Ama Begira zazu" lanarekin. 404 sarrera saldu ziren "Florido Pensil" ikusteko eta Kultur Saitetik adierazi bezala, "jende asko eta asko sartu ezinik geratu zen". Hori dela eta, antzezlan hori berriro Elgoibarrera ekartzeko planteatzen ari da Udala.*

Tanttakako kideen esku dago berriz Elgoibarrera etortzea. "Hala balitz, eurek erabakiko lukete data bai eta sarreraren zenbatekoa ere". Oraingoan 500 pta.tan mantendu da sarreraren prezioa, "hori baita Elgoibarren edozein antzezlan ikusteko jarrita daukagun salneurria". Lan honek arrakasta handia izan du Euskal Herrian bai eta Estatu osoan ere. Elgoibarrera etorri aurretik Madrilan egon ziren antzeztan eta Elgoibarko emankizuna eta gero Sevillarantz abiatu ziren Tanttakakoak.

Gainontzean San Anton



egunerako antolatu ziren ekin-tzetan, buruhandietan eta haurren parkean, jendearen parte-hartzea "oso handia izan zen" kultur teknikariaren esanetan. Filatelia erakusketa, bestetik, larunbat goizean aurkeztu zen eta hilaren 26ra arte ikusgai egongo dira 91 bitrinetan antolatuta dauden zigili bildumak.

### Partaidetza ziurtatu

"San Anton jaietan diru gutxiago inbertitu eta jendea erakarriko dituzten ekintzak antolatzen ari gara azken urteotan", esan digu kultur teknikariak. Aurtengo San Anton jaietako aurrekontua 1.000.000 pta.koa izan da, zatirik garrantzitsuena antzerkia ordaintzeko izan delarik. Gainontzeko partida buruhandiak eta haurren parkearentzat izan da.



*Goian Florido Pensil. Erdian filatelia erakusketa, eta, behean, haurren parkea.*




## Gemma Monrealen erakusketa Elbarko Topaleku-n

Gemma Monreal margolari elgoibartarrak atzo, hilak 23, inauguratu zuen otsailaren 2ra arte Eibarko Topaleku aretoan egingo duen erakusketa. 21 koadro eraman ditu Gemmak erakusketara. Margoekin batera kaleratu duen katalogoan Marcelo Góngora eta J. M. Agirre Zenitagoitia margolarien kritikak agertzen dira. Gemmak esan digunez, 97rako hiru proiektu zehaztuta dauzka dagoeneko. Iruñean eta Leoneko Parador Nacional San Marcos-en

egingo ditu erakusketak eta Jaeneko Quesada herriko "Rafael Zabaleta" nazioarteko lehiaketan parte hartuko du. Aipatu behar da San Telmo museoan Gemmaren koadro bat dutela. Hala ere, bere lan gehientsuenak banketxe, aurrezki kutxa, enpresa eta partikularren eskuetan daude. Eibarko erakusketaren ordutegia eta helbidea: 19:00etatik 21:00etara astegunetan eta 12:00etatik 14:00etara jaiegunetan (Arrate Kultur Elkarte. Zuloagatarren kalea 3, Eibar).

## Lo!, musika talde berria sortu da

Elgoibarren beste musika talde bat sortu dela esan daiteke. Lehen Zokoan zenaren errautsetik Lo! sortu da. Miguel (teknikoa), Ernes (bateria), Alberto (bajoa), Roberto eta Juanjo (kitarrak) eta Iban (ahotsa) dira taldekideak. Ibanek esan digunez, “azken urteotan aldaketa ba tzuk izan ditugu eta horrek eragina izan du taldearen estiloan”. Tronpeta joan zaie eta bateria berria dute. Ibanen hitzetan, “aurrekoarekin apurto nahi genuen. Uste genuen izena mantendu arren gauza berriak egiten ari ginea demostratzearekin nahikoa izango zela baina aurreko taldeak zuen ‘famak’ gehiegi pisatzen zuen”. Denbora honetan talde desberdinen musika entzun dute eta horien guztien eragina nabaritzen da Lo!-ren abesti berrietan, “lehen abestiak ‘prebisibleagoak’ ziren, flojoagoak. Oin, gure ustez, abesti hobeak egiten ditugu”. Maketa grabatu nahi dute taldekideek. Momentuz abesti berriak sortzen ari dira eta zaharrak estilo berrira egokitzen. Gaur bertan, ostirala, lehen kontzertua emango dute Lo! izenarekin Bergarako Pol-Pol tabernan. Kontzertuak ematea da euren asmoa. Ea ba talde sortu berri honen zortea duen!



## ertzetik maketa berria kalean

**Maketa atera berri du, “ertzetik”. 6nemen9 talde duela 4 urte inguru sortu zen eta berehala Euskadi Gazteak antolaturiko maketa lehiaketa irabazi zuen. Urte hauetan gauzak ez dira gehiegi aldatu taldearentzat, hasi zireneko musika “marginal” berdinarekin jarraitzen dute. Hortik dator kio, hain zuzen, “ertzetik” izena maketari, 500 pta.tan Malape, Txuri-Beltz, Karobi, Oiz-Mendi eta Lanbroan salgai dagoena.**

**– Toki txiki eta ilunak gus-ta-tzen zaizkizue.** - Bai, txikixa ze ez dou jende asko mobi-tzen eta jendiantzat askoz hobeto dia leku txikixak, bestela oso haundi eta hutsak geratzen dia eta. Eta iluna guk askoz lasaixo jotzen dogulako iluntasunian.

**– Bigarren maketa kalean.** - Bai, gauzak aldatu ein dia. Lelengo maketia grabatzera jun ginanian sekula estudixio baten egon gabe geunden eta dana zan berrixa guretzat. Oinguan, Bilboko Maesmaje estudixuan grabau dou eta askoz hobeto urten da dana. Gainera, Little Fish, bertako jabia eta iaz “Villa Bilbao” irabazi zaban taldekua, asko inplikau zan grabazio osuan,

ideak eman zitxun eta hori igarri itxen da.

**– Eskenatokian abeslariaren metamorfosia lasaitu egin da. Zergatik?** - Ez da gauza konsziente bat izan. Bi bider urten nitzan guantiekkin eta arpeixa margotuta, behin telebisuan urten bihar ginako eta bigarrenian Herriko Antzokixan jo genduanian, estetikoki ondo geratzen zalako.

**– Goazen abestiei buruz hitzegitera: Dalila.** - Emakume misteriotu bati buruzko istorixia.

**– Garai batean.** - Maitasuna eta krimen bat.

**– Hi, Jainko beltza.** - Iluna.

**– Itxaropenaz.** - Itxaropena izatera ez iristeko egin behar denari buruzko erreflexioa.

**– Ez zen zure asmoa.** - Depresio bat.

**– Askatasun zale.** - Askatasunari buruz.

**– Letra deskriptiboak dira.** - Bai, gehixo dia imajinak, sentazioak, flashak, narrazioak baino. Dana dala, maketa honetan Joserra Garzia, Patziku Perurena eta Itziar Bartolomeren hitzak sartu ditugu.

**– Maketa honetan jende askori ematen diozue eskerak.** - Bai, lelengo maketia

etara genduanetik oin arte gure inguruan ibili izan dan jendia da: “Lili Moon” eta “Raw garlic” taldiak, entsaiatzen dogun lokaleko jabiak, lagun mordo bat, Malapeko Jesus...

**– Badago bat atentzioa deitzen duena: “Jon, atejoka”.**

- Bai. Hori izan zan abesti bat grabatzen ari ginala kriston atia zakan garajian jotzen hasi zan derrepentian bat, Jon. Golpia grabaziuan sartu zan eta lagatzia erabaki gendun ze justu momentu horretan letrik esaten zaban “askatasunak ez du aterik maitte” eta oso ondo geratzen zan. Berari ere eskaini nahi izan diogu maketia.

**– Zuen helburua zein da?**

- Gauza on bat itxia. Argi dakagu gu ez gerala “prostituitxuko” jende gehixok entzuteko gure lana. Lehen eta oin guri gustatzen jakuna ein izan dou. Hori jendiari gustatzen bajako, hobeto.

**– Kontzertuak han eta hemen eta lehiaketaren bat ere badago, ez?** - Bai, Villa Bilbaora bidali dou gure maketia. Txollo bat izango litzake hori irabazia ez bakarrik diru aldetik, disko bat grabatzeko aukeria ematen dizuelako ere bai.



INTERESE-

OSASUNA

Anbulategia:  
 Larrialdiak . . . . . 461111  
 Txanda hartzeko 743354  
 Planning-a . . . . . 742950  
 Alkoholiko Anonimoak 740385  
 D.Y.A (anbulantzia) . . 464622  
 Gurutze Gorria . . . 743864  
 Mendaroko Ospitalea. 756264  
 Odol Emaileak . . . 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442  
 PESA (Eibar) 902 10 12 10  
 Taxi geltokia . . . . . 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366  
 Udal Kirol Patronatua  
 744415  
 Kultura Zerbitzua . 742158  
 Mendaroko Udala. 756100  
 Ongizate zerbitzua 741008  
 Udaletxea. . . . . 741050  
 Udaltzaingoa . . . . 741394

BESTELAKOAK

Caritas . . . . . 740142  
 Elgoibarko Izarra . 741626  
 Kiroldegia . . . . . 74 4415  
 Kontsumo Bulegoa 743088  
 Liburutegia . . . . . 743525  
 Musika Eskola . . . 742145  
 Mintxeta . . . . . 744315  
 Parrokia . . . . . 740842  
 Postetxea . . . . . 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296  
 Zaharren Biltokia . 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . . 74 21 41  
 Herri Eskola . . . . 74 08 79  
 I.M.H. . . . . . 74 41 32  
 Institutua. . . . . 74 02 67  
 Ikastola. . . . . 74 44 41  
 L.H.I. . . . . . 74 44 80  
 Pilar Ikastetxea. . 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN. . . . . 74 41 12  
 El Diario Vasco . 74 40 73  
 El Correo Español 74 10 82  
 Egin . . . . . 10 84 21

24 ostirala

19,00 IKASTOLAKO IKASLEEN JAIALDIA Kiroldegian

22,15 ZINE KLUBA "Microcosmos" Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

25 larunbata

19,30-22,15 ZINEA "Pánico en el túnel"

26 igandea

16,30-19,30-22,15 ZINEA "Pánico en el túnel"

27 astehena

22,15 ZINEA "Pánico en el túnel"

30 osteguna

22,15 ZINE KLUBA "Lone Star" Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

31 ostirala

18,30 ODOLATERALDIA P. M. Urruzuno 8an

18,30 LAGUN TALDEAREN BATZAR NAGUSIA Kultur Etxean

22,15 ZINE KLUBA "Lone Star" Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

Txirrindularien batzar nagusia

Elgoibarko Lagun Taldeak hil honen 31n, ostirala, arratsaldeko 7,30etan 1997ko ohiko Batzar Nagusia egingo du Kultur Etxean. Gai-zerrendaren arabera hauexek dira landuko diren putnuak: aurreko batzar agiriaren onartzea, 1996ko ekitaldiaren balantzea, 1997ko ekitaldirako aurrekontua, denboraldiari buruzko azalpenak, bidai eta lasterketak eta galdera-eskaerak. Elkarteko bazkide eta batez ere gurasoei batzarrera joan daitezten eskatzen zaie.



ZINEA



Zuzendaria: Rob Cohen  
 Antzezleak: Sylvester Stallone, Amy Brenneman, Stan Shaw.

Pánico en el túnel

Manhattan eta New Jersey lotzen dituen tunel batean eztanda bat dago. Tunela Hudson ibaiaren azpitik pasatzen da. Tunelean harrapatuta geratzen den pertsona talde baten bizia arriskuan dago oxigeno eza eta hormetatik filtratzen den urarengatik. Hil ala biziko egoera baten kontakizuna da.

**Maria Urizar**

ileapaindegia eta solariuma

Errosario 9-1ezk.  
 ☎ 74 44 89 ELGOIBAR

**BOUTIQUE DEL PAN**

Enpanadak Enbutidoak  
 Baserriko ogia Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92



### ● Ikastolako urteko jaialdia

Gaur, hilak 24, Ikastolako haurrek urteko jaialdia egingo dute Kiroldegian. Iluntzeko 7etan hasiko den saioan hasi 2 urteko haurren saioarekin eta lehen, bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailakoen jarduna ikusteko aukera izango da. Antzetzuko dituzten lanak hauek dira: "Klin Klan" (2 eta 3 urtekoak), "Tantaka Yotanka" (4 urtekoak), "Eba Mirentxu" (5 urtekoak), "Zezenak Plazan" (1. mailakoak), "Xalaka riki riki" (2. mailakoak), "Korrika apustua" (3. mailakoak), "Horrela, hala... edo nola?" (4. mailakoak), "Amaia" (5. mailakoak) eta "Dantzaraokea" (6. mailakoak).

### ● Euskararen Unibertsoren aurkezpena Eibarren

1996ko otsailean sortutako Euskararen Unibertsoren bilera egingo da datorren asteartean, hilak 28, Eibarko Portalekuko Kultur Etxean. Saioa illuntzeko 7etan hasiko da. Aurkezpenean EKBko buru den Juan Mari Mendizabal elgoibartarrak hartuko du parte.

### ● Odol ateraldia

Datorren ostiralerako, hilak 31, odola ateratzeko deialdia luzatu du Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak. Ordutegia arratsaldeko 6,30atik 8,30ak bitartera izango da. Edonork emaile izan nahiko balu egoitzatik pasatu besterik ez du. Emaile izateko baldintza bakarra 18 urte-tik gorakoa izatea da.

## T X A N - D A K

### FARMAZIAK

	Egunez	Gauzez
24	Yudego	Yudego
25	Yudego	Yudego
26	Yudego	Yudego
27	Bidasolo	Anduaga
28	Yudego	Zabaleta
29	Etxeberria	
30	Ormazabal Escala	

## ONGARRI zine kluba



### Lone Star

Zuzendaria: J. Sayles. Antzezleak: C. Cooper, E. Peña, J. Morton, K. Kristofferson.

Sam Deeds, Mexicoko mugatik gertu dagoen Frontera herriko sheriffa da. Bere aitak 15 urte eman zituen postu berean eta hiritar askok mito bat bailitz gogoratzen dute. Oraindik gogoan dute nola bota

zuen bere aurretik egon zen Charlie Wade, ustela eta arrazista bera. Egun batean hiritik gertu dagoen lur sail batean ustez Wade-ena izan daitekeen eskeletoa agertzen da. Hezurren ondoan sheriff txapa bat ere azaltzen da. Sam ikertzen hasiko da eta bere aitari eta berari buruzko gauza askoren berri jakingo du.

## AZALEA edergintza

MARI KARMEN BERECIARTUA

Estetizista · Bisajista · Masajista

GORPUTZ eta AURPEGIRAKO tratamenduetan azken berrikuntzak

Trenbide kalea, 3, beheka (estazio parean) - Tel. 74 03 10



## OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

(943) 20 35 15 ● ABERIAK (943) 20 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

## Salerosketak

### ◆ SALDU ◆

- ◆ "LUR" HIZTEGI enziklopedikoa saltzen da. **☎ 79 78 26.** Goizez 10etatik 1etara eta arratsaldez 4etatik 9etara.
- ◆ 1,05x2 luzerako OHE estreinatua berria salgai. **☎ 74 23 22**
- ◆ ESKALADAKO MATERIALA salgai. 60x1'5 soka eta arnesa. Merke. **☎ 74 02 30**
- ◆ SEAT RITMO bat salgai. Prezio onean. **☎ 19 50 89** Emilia
- ◆ PEUGEOT ST motorra saltzen dut. 49 cc., gutxi erabilia eta ondo zaindua. **☎ 74 06 33** (Xabier)
- ◆ OPEL KADET Beauty SS-2217 AK salgai. **☎ 74 15 45** (eguerdian eta gauean)
- ◆ Kotxesilla bat saltzen dut egoera oso onean eta merkea. **☎ 74 10 42**
- ◆ Kitarra elektrikoa eta anplia erosiko nituzke. **☎ 74 37 23** (Eguerdian eta gauean)
- ◆ RENAULT 9 GTL kotxea saltzen dut. Oso egoera onean dago. **☎ 74 36 98**
- ◆ Golf GTI SS 1260 AH bat saltzen dut. Egoera oso onean dago. **☎ 75 51 90**
- ◆ SKIAK ETA BOTAK salgai. Dynastar 1,85ko skiak, Tyrolia loturekin. Botak (Nordica) 42-43. Egoera onean. **☎ 74 18 55** (Gauetz)
- ◆ Ford Fiesta batentzako EKIPAIARAKO PARRILA saltzen dut prezio onean. Bai eta Ford Scort baterako gurgpileko tapak ere. **☎ 74 27 93**
- ◆ BUTANOZKO SUKALDE ia berria saltzen dut estrenatu gabeko labe batekin. **☎ 74 10 09**
- ◆ MOTOR BAT erosiko nuke. **☎ 74 17 87**
- ◆ Bigarren eskuko BIBOLIN BAT saltzen dut. Oso egoera onean. **☎ 74 23 13**
- ◆ Erreperiderako BIZIKLETA salgai. Merke eta egoera onean. **☎ 74 11 29**

### ◆ EROSI ◆

- ◆ Trikitia jotzeko bigarren eskuko SOINU TXIKI BAT erosiko nuke. **☎ 74 06 55** (Gauko 8etatik aurrera)

## Lana

### ◆ ESKAERA ◆

- ◆ Ileapaintzailea naiz eta etxez etxe mozten dut ilea. Mari Karmen. **☎ 74 21 55**
- ◆ Emakume bat eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko. **☎ 74 04 75**
- ◆ 23 urteko neska eskaintzen da sukaldari lanetarako edo garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. (Rosi) **☎ 74 36 38**
- ◆ Garraiolaria eskaintzen da furgonetarekin. **☎ 989 09 31 86**
- ◆ Harategi edo urdaitegi batean edo taberna batean pintxoak egiten lan egingo nuke. **☎ 74 11 40** (Iru-  
ne)
- ◆ Administrari lanak egingo nituzke, esperientzia daukat. Segituan lanean hasteko prest nago. **☎ 74 39 39** (Puri)
- ◆ Administrari lanak egingo nituzke. Bai etxeko lanak egin eta umeak zaindu ere. **☎ 74 40 57** (Celsa)
- ◆ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat dependienta bezala. **☎ 74 22 78**
- ◆ Haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. **☎ 74 23 90**
- ◆ Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. **☎ 74 15 09 / 74 30 30**
- ◆ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia eta informazioak daukat. **☎ 74 23 30** (Eva)

### ◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Martxan dagoen fotokopisteria eta paperdenda bat traspasatzen da Ermuan ezin atenditu dugulako. **☎ 17 07 07 / 74 21 43**
- ◆ Publizitate eta promozio gaien enpresak komisioz komertzialak behar ditu (egun osoz edo erdiz). **☎ 70 12 33**

## Partikularrak

- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. **☎ 74 21 65** Javi
- ◆ Matematika finantzierok ematen dituen norbait behar dugu. **☎ 74 13 18**
- ◆ Partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntza, DBH, Lehen zikloa eta ingelesa. **☎ 74 28 02**

## Etxebizitzak

- ◆ Etxe bat saltzen da Arregitorre 14an, 9. pisua. 3 gela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. Oso eguzkit-sua. **☎ 74 01 34**
- ◆ Pisua salgai San Antolinen egoera onean. 3 gela, egongela, sukaldea eta bainua. **☎ 12 72 22**
- ◆ Alokatzeko pisu bila gabiltza. Moblatuta eta 3 logelarekin. Joseba Astorkiza. **☎ 74 41 32**
- ◆ Pisu amoblaturak alokatzen da. **☎ 74 04 75**
- ◆ Etxea saltzen da San Roken, Arregitorre 12 zenbakian. Erabili gabe dago eta hiru logela, 2 bainu, jangela, sukaldea, ganbara eta garajea ditu. **☎ 75 51 77**
- ◆ Etxebizitza berritua eta buhardilla salgai daukat S. Frantzisko kalean. **☎ 74 01 84** (Elena)
- ◆ Pisua eta garajea salgai ditut San Inazio kalean. 3 logela, komuna, sukaldea, jangela eta ganbara eder bat. **☎ 909 62 90 74**
- ◆ Etxe bat saltzen da Soroluzen. **☎ 75 11 44** (Justo)
- ◆ Elgoibarren edo Eibarren pisua nahi dut alokatzeko. Maria Oliva **☎ 74 16 30** (lanorduetan)
- ◆ Altzolan egoera onean dagoen buhardilla bat salgai. Prezio ona. **☎ 74 37 41**

## Bestelakoak

- ◆ Astearte iluntzean Leku-Ederren bi Barbie kopin eta gomazko horka bat topatu genituen. Udaltzaingoa daude.
- ◆ Zilarrezko pultsera sendo bat galdu nuen Gabon Zahar feria gunean Lojantzik Oraikora bitartean. **☎ 74 00 72**
- ◆ Emakumezkoen erloju bat aurkitu dute Olasoko industrialdean. **☎ 74 41 65**
- ◆ Larunbat goizean, hilak 11, Kiroldegian txamarra hori bat forro berdearekin konfundituta hartu nuen. 12 neurrikoa da eta Haritz Arrieta jartzen du. Nirea berdina da baina taila bat txikiagoa (10). Hartu duenak deitu. **☎ 74 05 37**
- ◆ CARITAS-ek butanozko estufa bat dauka emateko. **☎ 74 15 09 / 74 12 57**

## Agurrak

- ◆ Otsailaren 1ean urteak beteko dituen **Guruzne Urkidiri** enpozioronak!!! 6. mailako guztien partez.



- ◆ Zorionak amama Joxepari familia guztiaren partez hilaren 26an urteak beteko dituelako.



- ◆ Hilaren 28an 5 urte betetzen dituen **Maite de Pablo Salegiri** zorionak bere anaia Joseba eta aita eta amaren partez.



- ◆ Zorionak **amama Inesi** hilaren 21ean urteak bete zituelako. Olatz eta Nerea Gil-en partez.
- ◆ **Nerea Gil**-i zorionak hilaren 30ean 10 urte beteko dituelako. Leire Apellaniz-ek.
- ◆ **Mikel Lariz**-i super zorionak hilaren 20an urteak egin zituelako. 6. mailako ikaskideen partez.
- ◆ Hilaren 22an urteak bete zituen **Arianne Peñarandari** zorionak bere lehengusu, anaia eta gurasoen partez. Zorionak!

- ◆ Gaur, hilak 24, 7 urte egin dituen **Aiser Lizarralderi** eta hilaren 27an urteak beteko dituen bere arreba **Miriam**-i zorionak bere sende guztien partez.
- ◆ Zorionak **Ainhoa Arevalo-ri eta Oihane Garateri** hilaren 25an eta hilaren 29an urteak beteko dituztelako. 4. mailakoen partez eta bereziki Ainhoa Uribe eta Nerea Gil-en partez.
- ◆ Urtarrilaren 17an 6 urte bete zituen **Danel**-i zorionak Ainhoaren partez.

## Garajeak

- ◆ Garaje bat daukat alokatzeko San Roken, Karakate elkartearen azpian. **☎ 74 18 37**
- ◆ Garaje bat daukat saltzeko. Marraduna. Pista beltzean. **☎ 74 39 19** (Gauetz)
- ◆ Arregitorren garaje itxi bat saltzen da. **☎ 74 12 53**



# CENTRONET

T I N D A T E G I A

*CENTRONET tindategiak bere lehen urtea ospatu nahi du bere bezero guztiekin.  
Hori dela eta, **otsailaren 15a arte** eskaintza berezi hau izango duzu:*

**EDOZEIN JANTZIREN GARBIKETA 595pta.**

**ZERBITZURIK ONENA PREZIORIK INTERESGARRIENETAN**

**CENTRONET:** Errosario kalean, LIZZY dendan. 20870 ELGOIBAR  
Bidebarrieta, 42 behea. 20600 EIBAR (Gipuzkoa) Tel. 943 **20 42 63**

## **AROZTEGIAK**

**BIENA**  
Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 74 31 16

**GARCIA**  
Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 74 32 38

**JUARISTI**  
Leihoak-Armairu  
enpotratuak  
Santa Ana, 18  
☎ 74 29 94

**LODOSO**  
Leihoak  
Ermuaranbide, 16  
☎ 74 34 90

**SORALUZE**  
Leihoak-Armairu  
enpotratuak  
Santa Ana, 3  
☎ 74 36 34

**ULAZIA**  
Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 74 05 47

**ZABALA**  
Etxeko erreformak-enbalajeak  
Deba kalea 16  
☎ 74 03 96

**LUIS F. BERISTAIN**  
Artetxe, 1  
☎ 909 42 68 19

## **ITURGINTZA**

**ANGEL**  
Santa Ana, 5  
☎ 74 17 61

**JAVI**  
Erretxindi, 1  
☎ 74 14 80

**JUAN CARLOS S.L.**  
Urasandi 59-61, behea  
☎ 74 34 87

**PAGOAGA**  
San Antolin kalea, 13  
☎ 74 02 79

**ZALDUA**  
Urasandi, 26  
☎ 74 05 30

**ZUBIZARRETA**  
Ubitarte, 5  
☎ 74 07 89  
☎ 908 14 30 40

## **IGELTSERITZA**

**KIDEOK S.L.**  
San Roke, 17  
☎ 74 34 86  
☎ 989 58 37 61

**ANTONIO MARKEZ**  
Urasandi, 24  
☎ 74 34 18

**PATXILLO**  
Pedro Muguruza, 13-5  
☎ 908 31 96 42

## **PINTURAK**

**PINTURAS ELGOIBAR**  
**FERMIN**  
Urasandi, 57-3  
☎ 74 39 91  
☎ 909 76 28 80

**ARGI PINTURAK**  
Erretxindi, 1  
☎ 74 41 47  
☎ 909 20 72 05

**JOSE PINTURAK**  
San Bartolome, 28  
☎ 74 12 55  
☎ 929 24 23 14

## **ELEKTRIZITATEA**

**ARAMAR**  
Morkaiko, 1  
☎ 74 12 80

**AZPELETA**  
San Frantzisko, 51  
☎ 74 12 38

**BETI ARGÍ**  
Errosario, 6  
☎ 74 16 44

**URZELAI**  
Santa Ana, 12  
☎ 74 13 76

## **ISOLAMENDUAK**

**GLAS CONTROL S.L.**  
Inpermeabilizazioak  
Ubitarte, 7  
☎ 74 30 94